

TOLOSAKO UDALA*Iragarkia*

Tolosako Udaleko Errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistroaren erregelamenduaren behin-behineko arauzko informazio publikorako epea inolako errekurtsio, erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaro ondoren, behinbetiko ontzat ematen da eta hitzez hitz ematen da argitara Erregimen Lokaleko Oinarrien Arautzailer den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezartzen dena betez.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango dute interesatuek dagokion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salan, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta 2 hilabeteko epean

**TOLOSAKO UDALEKO ERRENTAMENDU
ARAUBIDEKO ETXEBIZITZA BABESTUAK,
ZUZKIDURA BIZITOKIAK ETA PAREKATUTAKO ETXEBIZITZEN
ESKATZAILEEN ERREGISTROAREN
ERREGELAMENDUA**

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen helburua da Tolosako Udalak sustatutako errentamendu araubideko etxebizitza babestuen, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren (administrazioak bultzatutako programaren batean txertatutako etxebizitza libreak) eskatzaileen erregistroa arautzea.

2. artikulua. Izaera.

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa titulartasun publikoko erregistroa da, doakoa eta administratiboa, Tolosako Udalaren mende dagoena eta Etxebizitza Zerbitzuak kudeatzen duena; bertan, errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak eskatzen dituzten pertsona fisikoak edo bizikidetzak unitateak inskribatzen dira.

3. artikulua. Eginkizunak.

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroak eginkizun hauek ditu:

a) Etxebizitza eskatzen duten pertsona fisikoak edo bizikidetzak-unitateak erregistratzea, bideko baldin eta errentamendu araubideko babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak eskuratzeko araudian xedatutako baldintzak betetzen badituzte.

b) Babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak kudeatzeko eta esleitzeko beharrezko diren datuak ematea, herritarrei berdintasuna eta lehia bermatuta horiek eskuratzeko garaian.

c) Tolosako udalari informazio eguneratua ematea, babes-tutako etxebizitzaren arloko informazio eguneratua ematea, etxebizitzaren arloko jarduerak kontrolatu eta jarraitu ahal izateko, bai eta programazioak benetan dagoen eskarira egokitu ahal izateko ere.

4. artikulua. Datuen babesa.

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroak etxebizitza-eskatzaileen eta bizikidetzak-unitateko kideen nortasun-datuak jasoko ditu, etxebizitza eskaeren bitartez bildu dituenak. Datu horiek, datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira datuak babesteko araudiari jarraiki.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública del Reglamento del Registro de Solicitantes de Vivienda protegida en régimen de arrendamiento, alojamientos dotacionales y viviendas asimiladas del Ayuntamiento de Tolosa, sin que se haya producido recurso, reclamación ni observación alguna contra el mismo, se considera definitivamente aprobado y se hace público su texto íntegro en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

**REGLAMENTO DEL REGISTRO DE SOLICITANTES DE
VIVIENDA PROTEGIDA EN REGIMEN DE
ARRENDAMIENTO, ALOJAMIENTOS DOTACIONALES
Y VIVIENDAS ASIMILADAS DEL AYUNTAMIENTO DE
TOLOSA**

Artículo 1. Objeto.

El presente reglamento tiene por objeto regular el Registro de solicitantes de vivienda protegida en régimen de arrendamiento, alojamientos dotacionales y viviendas asimiladas (viviendas libres incorporadas a algún programa de alquiler) promovidas por el Ayuntamiento de Tolosa.

Artículo 2. Naturaleza.

El registro de solicitantes de vivienda es un registro de titularidad pública, gratuito y de naturaleza administrativa, dependiente del Ayuntamiento de Tolosa y gestionado por el servicio de vivienda, en el que se inscriben personas físicas o unidades convivenciales demandantes de viviendas de protección oficial en alquiler, de alojamientos dotacionales y de viviendas asimiladas.

Artículo 3. Funciones.

Son funciones del Registro de solicitantes de vivienda:

a) Registrar a las personas físicas o unidades convivenciales demandantes de vivienda que reúnen los requisitos previstos en la normativa para acceder a viviendas de protección oficial en alquiler, a alojamientos dotacionales y a viviendas asimiladas.

b) Facilitar los datos precisos para la gestión y adjudicación de viviendas de protección oficial el alquiler, de alojamientos dotacionales y de viviendas asimiladas, garantizando a la ciudadanía la igualdad y la concurrencia en el acceso a las mismas.

c) Recopilar, tratar, gestionar y proporcionar al Ayuntamiento de Tolosa información actualizada que le permita el control y seguimiento de las actuaciones en materia de vivienda y adecuar las programaciones a la demanda real existente.

Artículo 4. Protección de datos.

El Registro de Solicitantes de Vivienda en alquiler contendrá datos identificativos de las personas demandantes de vivienda y de las personas que formen parte de las unidades convivenciales, obtenidos de las demandas de vivienda. Dichos datos serán incorporados a ficheros de datos de carácter personal de conformidad con la normativa de protección de datos.

5. artikulua. Erregistroan inskripzioa egiteko baldintza orokorrak.

1. Pertsona fisikoak edo bizikidetz-unitateak alokairu-araubideko etxebizitza, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan eskatzaile gisa inskribatu ahal izango dira beti ere, indarreko araudiak etxebizitza horiek eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte eskaeraren egunean.

2. Etxebizitza-premia dagoela joko da Euskal Herriko zazpi herrialdeetan jabetzan, azalera-eskubidean edo gozame-nean etxebizitzarik ez badu.

3. Alokairu-araubidean babes ofizialeko etxebizitza bat, zuzkidura-bizitoki bat edo parekatutako etxebizitza bat duten pertsonak edo bizikidetz-unitateak, kontratua amaitu aurreko sei hilabeteetan baino ezin izango dira inskribatu.

6. artikulua. Etxebizitza-premiaren baldintzaren salbuespenak.

Etxebizitza -premiaren baldintzaren salbuespenak indarreko araudiak, ezarritakoak izango dira.

7. artikulua. Atzeritarren bete beharreko baldintzak.

Atzerriko nazionalitatea dutenek, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatu ahal izateko 5 e 6. Artikuluetan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte, eta egoitza-baimena indarrean izan beharko dute. Halaber, urtebeteko errolda ziurtatu beharko dute Euskal Herriko zazpi herrialdeetako udalerrietako batean.

8. artikulua. Eskaeraren eredia.

1. Erregistroan inskribatzeko eskabideak Tolosako Udalean hartarako duten ereduaren arabera egin beharko dira. Eredu hori Udaletxean bertan emango diete interesdunei. Era berean, eredia eskuragarri dago Tolosako Udalaren web orrian, www.tolosakoudala.net atalean, edo hori ordeztzen duen atalean.

Eskabide honekin batera etxebizitza-eskatzaile izateko kasu bakoitzean eska daitezkeen baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa eman beharko da.

2. Eskabideak pertsona fisikoek indibidualki edo etxebizitza berean biziko direnekin batera egin ahalko dituzte.

3. Ezin izango dituzte etxebizitza-eskaerak indibidualki egin ezkontza bidez lotutako pertsonak, legez bananduak ez baldin badaude, eta ezta izateko bikoteek ere.

9. artikulua. Erregistroan alta ematea.

1. Eskabide bati Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emateko eskatzen diren baldintzak honako hauek dira:

a) Bizileku baldintza:

Euskal Herriko zazpi herrialdeetako edozein herritan ohiko bizilekua izatea eta bertan erroldatuta izatea urtebetetik gorako epean, eskaera egin aurreko aldian.

b) Eskatzaileek etxebizitza lortzeko eskatzen diren gutxienekoaren eta gehiengoaren arteko diru-sarrerak egiaztatuta beharko dituzte, lortutako etxebizitza motaren arabera.

c) Eskatzaileak inskribatze-eskaera egin aurreko bi urteko aldian Erregistroan baja eman badu, ezin izango du eskabidea egin, Erregelamendu honen 11. artikuluko 4. eta 5. idatz zatietan ezarritako arrazoiengatik.

Artículo 5. Requisitos generales para la inscripción en el Registro.

1. Las personas físicas o unidades convivenciales podrán inscribirse en el Registro de Solicitantes de viviendas en Tolosan de arrendamiento, alojamientos dotacionales y viviendas asimiladas, siempre que en la fecha de solicitud cumplan los requisitos previstos por la normativa vigente para el acceso a tales viviendas.

2. El requisito de necesidad de vivienda se entenderá referido a la carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie o usufructo en los siete territorios de Euskal Herria.

3. Las personas o las unidades convivenciales que disfruten de una vivienda de protección oficial en arrendamiento, de un alojamiento dotacional o de una vivienda asimilada solo podrán inscribirse durante los seis meses anteriores a la fecha de finalización del contrato.

Artículo 6. Excepciones al requisito de necesidad de vivienda.

En lo que respecta a las excepciones al requisito de necesidad de vivienda habrá que remitirse a lo establecido por la normativa vigente.

Artículo 7. Requisitos para las personas extranjeras.

Las personas de nacionalidad extranjera podrán inscribirse en el Registro de solicitantes de vivienda cuando cumplan los requisitos previstos en los artículos 5 y 6, y estén en posesión de una autorización de residencia en vigor. Además deberán acreditar un año de empadronamiento en cualquiera de los municipios de los siete herrialdes de Euskal Herria.

Artículo 8. Modelo de solicitud.

1. Las solicitudes de inscripción en el Registro deberán realizarse conforme al modelo que a tal efecto obra en las dependencias del Ayuntamiento de Tolosa, y que será facilitado a las personas interesadas. Igualmente, el modelo se encuentra disponible en la página web del Ayuntamiento, en el apartado www.tolosakoudala.net, o el que le sustituya.

A esta solicitud habrá de acompañarse la documentación acreditativa de los requisitos exigibles en cada caso para ser solicitante de vivienda.

2. Las solicitudes podrán ser realizadas por personas físicas de forma individual o de forma conjunta por aquellas que vayan a residir en la misma vivienda.

3. No podrán realizar solicitudes de viviendas de forma individual las personas unidas por matrimonio que no se encuentren separadas legalmente y tampoco las parejas de hecho.

Artículo 9. Alta en el Registro.

1. Los requisitos exigibles para que una solicitud sea dada de alta en el Registro de Solicitantes son los siguientes:

a) Requisitos de residencia:

Residencia habitual y empadronamiento durante al menos un año en alguno de los municipios de los siete territorios de Euskal Herria, en el periodo anterior a la solicitud

b) El conjunto de los solicitantes deberá acreditar ingresos entre el mínimo y máximo exigidos por la normativa vigente para el acceso a tales viviendas.

c) Ninguno de los solicitantes habrá sido dado de baja en el Registro, en los dos años anteriores a la solicitud de inscripción, por los motivos establecidos en el artículo 11, apartados 4 y 5 del presente Reglamento.

d) Alokairu araubideko etxebizitzaren edo zuzkidura-bizitokiaren onuradun guztiek —elkarbizitza unitateko kide guztiak sartzen dira onuradunen multzoan— bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea era hauetakoren batean: Jabetzan-erabatekoan edo ez azalera-eskubideko jabetzan-, edota biziarteko gozameneko eskubide erreale bezala, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako batean, etxe premia definitzen duen arautegi autonomikoaren terminoetan eta salbuespenekin; edo, etxebizitza edukita ere, horrek ez betetzea indarrean dauden arauk edatutako bizigarritasun baldintza minimoak.

Artikulu honen ondorioetarako, eskatzailetzat hartuko dira babes publikoko etxebizitzari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera titular izan behar dutenak.

2. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioek 2 urteko gehieneko indarraldia izango dute, eta esan-bidezko eskabide baten bidez berriro ahaliko dira. Etxebizitza Zerbitzuak inskribatzeko epea amaituko den eguna berriro ahal izateko behar beste aurrerapenez jakinaraziko die pertsonari edo bizikidetzaren unitateei.

10. artikulua. Inskripzioa aldatzea.

1. Etxebizitza-eskatzaileek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzea eragin zuen eskaeran jasotako datuen gainean ondoren gertatutako edozein aldaketaren berri eman behar diote Etxebizitza Zerbitzuan, eta horiek aldatzeko ere eskatu behar diote.

2. Bizikidetzaren unitatean kide berriak sartzeko beharrezko datuak jaso beharko dira eskaeran; horretaz gain, bertako titular guztiak adostasuna ere agertu beharko dute.

3. Bizikidetzaren unitatetik ateratzeko aski izango da atera nahi duten kideek espresuki adostasuna ematea.

11. artikulua. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ematea.

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja izateko arrazoiak honako hauek dira:

1. Eskatzaileak edo titular guztiak hala eskatzean.
2. Eskatzailea hiltzean edo bizikidetzaren unitatetik ateratzean, edo eskaeraren titularretako edozein, baldin eta horrek inskripzioak jarraitzeko baldintzak ondoren ez betetzea bada.
3. Inskripzioaren indarraldia amaitzean, eta espresuki berriro ez denean.
4. Eskaera egin duen pertsonari edo bizikidetzaren unitateari etxebizitza bat esleitzean.
5. Etxebizitza baten salerosketa-kontratu pribatu bat sinatzean.
6. Partikularren artean, babes ofizialeko etxebizitza bat alokatzeko kontratu bat sinatzean.
7. Eskatutako araubidean bizikidetzaren unitatearen bizitegi-premien arabera etxebizitza baten esleipenari uko egitean.
8. Etxebizitza-esleipen bakar bati uko egitea, eskatutako etxebizitza mota eta erregimen bakarra baldin bada.
9. Honako arrazoiren batean oinarrituta, inskripzioa ezeztatzean:

a) Eskaera edo horrekin batera edo administrazioaren eskariz emandako datuak zehaztugabeak, faltsuak edo osatugabeak direla egiaztatzea, horrek ekar ditzakeen erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak baztertu gabe.

b) Inskribatzeko beharrezko baldintzak gerora ez betetzea.

d) Todos los beneficiarios de las viviendas o alojamientos dotacionales, entendiendo por tales la totalidad de los miembros de la unidad convivencial, deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio, en los siete territorios de Euskal Herria y ello en los términos y con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda o salvo cuando la vivienda de la que dispongan no alcance las condiciones mínimas de habitabilidad establecidos en la normativa vigente.

A los efectos de este artículo, se entenderá por solicitantes aquellos que deban ser titulares de conformidad con lo establecido en la normativa de vivienda de protección pública en vigor.

2. Las inscripciones en el Registro de Solicitantes de Vivienda, tendrán una vigencia máxima de 2 años, pudiendo ser renovadas mediante solicitud expresa al efecto. El servicio de vivienda informará a las personas o unidades convivenciales de la fecha de finalización del plazo de inscripción con la antelación suficiente para permitir su renovación.

Artículo 10. Modificación de datos.

1. Los solicitantes de vivienda tienen el deber de comunicar al Servicio de Vivienda cualquier variación sobrevenida de los datos consignados en la solicitud que dio lugar a su inscripción en el Registro y solicitar su modificación.

2. La incorporación de nuevos miembros a la unidad convivencial precisará la consignación en la solicitud de los datos requeridos y del consentimiento expreso de todos los titulares de la misma.

3. La salida de la unidad convivencial únicamente requerirá del consentimiento expreso de los miembros salientes.

Artículo 11. Baja en el Registro de Solicitantes de Vivienda.

Serán causas de Baja en el Registro de Solicitantes de Vivienda:

1. La solicitud o petición de baja realizada por el propio solicitante, o por todos los titulares.
2. El fallecimiento o la salida de la unidad convivencial de la persona solicitante, o de cualquiera de las personas titulares de la solicitud cuando comporte el incumplimiento sobrevenido de las condiciones para la continuidad de la inscripción.
3. El transcurso del plazo de vigencia de la inscripción si haber sido expresamente renovada.
4. La adjudicación de una vivienda a la persona o unidad convivencial solicitante.
5. La firma de un contrato privado de compraventa de vivienda.
6. La firma de un contrato de arrendamiento de vivienda de protección oficial entre particulares.
7. La renuncia a la adjudicación de una vivienda adecuada a las necesidades habitacionales de la unidad convivencial.
8. La renuncia a una única adjudicación de vivienda, en el caso de ser el único tipo de vivienda solicitado.
9. La revocación de la inscripción fundamentada en cualquiera de los siguientes motivos:

a) La constatación de la inexactitud, falsedad u omisión de los datos consignados en la solicitud o en la documentación aportada junto con ella o a requerimiento de la Administración, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar.

b) El incumplimiento sobrevenido de los requisitos precisos para su inscripción.

12. artikulua. Erregistroan baja ematearen ondorioak.

1. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ematean, antzinatasuna galduko da, 11. artikulua 2. paragrafoan xedatutako kasuan izan ezik.

2. Halaber, ondoren zehaztutako epe hauetan inskribatzeko debekua sortuko da:

a) Urtebetez, inskripzioa berritzen ez bada, beharrezko agiriak aurkezten ez badira, eta baldintzak gerora ez betetzeagatik inskripzioa ezeztatzen bada.

b) Bi urtez, etxebizitza baten esleipenari uko egiten bazaio, eta datuak zehaztugabeak, faltsuak edo osatugabeak direla egiaztatzeagatik inskripzioa ezeztatzen bada.

3. Errentamenduan esleitutako babes ofizialeko etxebizitza baten, zuzkidura-bizitoki baten edo parekatutako etxebizitza baten edozein titularrak kontratua ez betetzeak aurreko lerrokadaren b) letran xedatutako ondorioak izango ditu, behar bezala egiaztatuz gero; hau da, errenta edo kanona nahita ez ordaintzea, higiezin materialki kuantifika daitekeen kaltea egitea edo berau baimendu gabe lagatzea edo legez kontrako delitua egitea sartzen dira ez-betetze horretan.

13. artikulua. Ebazpenak emateko eskumena eta jakinarazpen-prozedura.

1. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emateko ebazpenak, horiek ukatzea, baja eragitea edo inskripzioan ondorioak izan ditzakeen beste edozein alderdi Alkatetza-Dekretu bidez ebatziko dira.

2. Ebazpen horiek jakinarazteko, jakinarazpen pertsonala egingo zaio eskatzaile bakoitzari eta hala dagokionean, hartarako ezarritako prozedura administratiboa erabiliko da.

14. artikulua. Erregistroan Inskriba-tzetik ondorioztatutako bete-beharrak.

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Etxebizitza-aldaketa jakinaraztea.
2. Bizikidetzaren unitatean gertatutako aldaketak jakinaraztea.
3. Egoera zibilean izandako aldaketak jakinaraztea.
4. Inskripzioari eusteko eska daitezkeen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa emateari buruz egiten diren errekerimenduei prestasunez erantzutea.

15. artikulua. Etxebizitzak Erregis-troan inskribatu diren artean esleitzeko prozedura.

Alokairu-araubideko Babestutako etxebizitzaren zein zuzkidura-bizitokiaren eta parekatutako etxebizitzaren esleipen prozedura bakoitza, adjudikazio prozedura erregulatuko dituen oinarri arautzaile batzuk izango ditu, gutxienez ondorengo hauek zehaztu beharko dituelarik:

1. Sustapenaren etxebizitza kopurua eta etxebizitza bakoitzaren logela kopurua.
2. Egokitutako etxebizitza kopurua.
3. Etxebizitzak lagatzeko araubidea.
4. Dagozkion barematzeko eta puntuatzeko irizpideak, eta hala badagokio, esleipenean partehartzea kupo berezi bati mugatzea.
5. Baldintzak betetzen dituzten artean egokitutako etxebizitzak esleitzeko hurrenkera-ordena.

Artículo 12. Consecuencias de la baja en el Registro.

1. La baja en el Registro de solicitantes tendrá como consecuencia la pérdida de la antigüedad salvo en el supuesto previsto en el punto 2. del artículo 11.

2. Tendrá como consecuencia la prohibición temporal de inscripción durante los plazos siguientes:

a) Un año en los casos de falta de renovación de inscripción, falta de aportación de la documentación requerida y revocación por incumplimiento sobrevenido de requisitos.

b) Dos años, en caso de renuncia a la adjudicación de una vivienda y revocación por constatación de la inexactitud, falsedad u omisión de datos.

3. El incumplimiento contractual, debidamente acreditado, por parte de cualquiera de los titulares de una vivienda de protección oficial adjudicada en Tolosan de arrendamiento, de un alojamiento dotacional o de una vivienda asimilada, que consista en el impago voluntario de la renta o canon, ocasione un daño materialmente cuantificable en el inmueble o implique la cesión no autorizada de éste o la comisión de un ilícito penal, tendrá las consecuencias previstas en la b. del párrafo anterior.

Artículo 13. Competencia para el dictado de Resoluciones y procedimiento de notificación.

1. Las Resoluciones de alta en el Registro de Solicitantes de Vivienda, su denegación, baja o cualquier otro aspecto que afecte a la inscripción ya existente se resolverán mediante Decreto de Alcaldía.

2. La notificación de dichas resoluciones se efectuará a través de notificación personal a cada solicitante y en su caso mediante el procedimiento administrativo correspondiente.

Artículo 14. Obligaciones derivadas de la inscripción en el Registro.

Es obligación de los inscritos en el Registro de Solicitantes de Vivienda:

1. Comunicar el cambio de domicilio.
2. Comunicar las modificaciones producidas en la unidad convivencial.
3. Comunicar las variaciones en el estado civil.
4. Atender diligentemente los requerimientos que se les efectúen de aportación de la documentación necesaria a fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos exigibles para el mantenimiento de la inscripción.

Artículo 15. Procedimiento para la adjudicación de las viviendas entre los inscritos en el registro.

Cada procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección y alojamientos dotacionales en régimen de arrendamiento, así como las viviendas asimiladas será regulado por unas bases reguladoras del procedimiento de adjudicación que determinará por lo menos los siguientes extremos:

1. Número de viviendas de la promoción y número de habitaciones de cada vivienda.
2. Número de viviendas adaptadas.
3. Régimen de cesión de las viviendas.
4. Criterios de baremación y puntuación correspondiente y, en su caso, la limitación de participación en la adjudicación a un determinado cupo.
5. Orden de prelación para la asignación de las viviendas adaptadas entre quienes reúnan los requisitos.

6. Edozein kasutan, adjudikazio guztietarako, zozketa nahiz baremazio sistemaz izan, lehenetsunezko ordena hau ezartzen da, horretarako honako talde hauek sortuz:

1. taldea: Bizikidetzta-unitateko kide batek, gutxienez, honako baldintza hauetakoren bat bete behar du.

a) Tolosa izatea ohiko bizilekua eta bertan erroldatuta egotea, azken 15 urteetatik gutxienez 3 urtetan.

b) Tolosan lan egitea azken 5 urteetatik 3tan.

c) 15 urtez Tolosan erroldatuta bizi izana.

2. taldea: Bizitza-unitateko kide batek, Tolosa izatea ohiko bizilekua eta urte betez bertan erroldatuta egotea, gutxienez.

3. taldea. Tolosaldeko 28 udalerrietako batean bizitzea.

4. taldea. Tolosako Udaleko errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan izena emanda dauden gainontzekoak.

Arautegian, ordenantza honetan eta deialdi bakoitzeko oinarrietan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenen arteko hautaketa modua puntu baremazioa edo zozketa izango da.

Puntu baremazioaren sistema Udalak ezarriko du espezifikoki deialdi bakoitzaren oinarrietan lizitazio bakoitzerako; eta bermatu beharko du, kasu guztietan, aukera berdintasunaren printzipioa, herritar guztiak etxebizitza duin bat edukitzea eskubideari dagokionez.

Bestetik, zozketa sistemari dagokionez, deialdi publikoa egin behar da beti; horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira bere oinarriak, eta zozketa udal idazkariaren aurrean egin beharko da, edota eskuordez federaile publikoaren izaera duenaren aurrean.

7. Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren urteko diru-sarrera haztatuen gehieneko eta gutxieneko mugak.

8. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta dauden eta sustapenean interesa duten pertsonak prozeduran sartzeko epea eta bidea.

9. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaronzerrendak argitaratzeko tokiak.

10. Eskaerak barematzeko oinarri gisa hartuko den data.

16. artikulua. *Prozeduran sartzea.*

Borondatezkoa izango da prozeduran sartzea; halaber, has-teko aginduan zehaztutako epean eta bitartekoaren bidez egin beharko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.- Tolosako Udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroan aurrez egindako inskripzioak.

Tolosako Udaleko Etxebizitza Zerbitzuak erregelamendu hau indarrean sartu baino lehen, Tolosako Etxebizitza Tasatuen Erregistroan inskribatutako pertsonen eta bizikidetzta unitateen, eskaera erosketa eta alokairu edo soilik alokairu araubideko eskaerak egin zituztenei, 15 egunetako epea emango die errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan sartu ahal izan daitezzen.

Tolosa, 2013ko otsailaren 18a.—Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea. (2025)

6. En todo caso se establece para todas las adjudicaciones, tanto por el sistema de sorteo como por el sistema de baremación, el siguiente orden de preferencia, creándose al efecto los siguientes grupos:

Grupo 1. Al menos uno de los componentes de la unidad convivencial deberá cumplir alguno de los siguientes requisitos:

a) Residencia habitual y empadronamiento en Tolosa durante un mínimo de 3 años en los últimos 15 años.

b) Trabajo en Tolosa durante 3 años en los últimos 5 años.

c) Haber residido empadronado en Tolosa durante 15 años.

Grupo 2. Al menos uno de los componentes de la unidad convivencial deberá acreditar residencia habitual y empadronamiento en Tolosa durante un mínimo de 1 año.

Grupo 3. Los que tengan residencia en alguno de los 28 municipios que conforman la comarca de Tolosaldea.

Grupo 4. El resto de inscritos en el Registro Municipal de Solicitantes de vivienda protegida en régimen de arrendamiento, alojamientos dotacionales y viviendas asimiladas del ayuntamiento de Tolosa.

El modo de selección de entre quienes cumplan las condiciones previstas en la normativa, en este Reglamento y en las bases de cada convocatoria será mediante baremación de puntos o sorteo.

El sistema de baremación de puntos será establecido específicamente por el Ayuntamiento en las bases de cada convocatoria para cada licitación y deberá garantizar, en todo caso, el principio de igualdad de oportunidades con respecto al derecho de acceso a una vivienda digna de todos y todas las ciudadanas.

Por su parte, el sistema de sorteo, en todo caso, deberá ser objeto de convocatoria pública mediante publicación con sus Bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y realizarse ante el Secretario de la corporación municipal o personal que por delegación ostente el carácter de fedatario público.

7. Límites máximo y mínimos de ingresos anuales ponderados exigibles.

8. Plazo y medio para que las personas inscritas en el Registro de Solicitantes de Vivienda e interesadas en la promoción se incorporen al procedimiento.

9. Lugares de publicación de las listas de admitidos y excluidos, asignación de viviendas y listas de espera.

10. Fecha para baremación de las solicitudes.

Artículo 16. Incorporación al procedimiento.

La incorporación a cada procedimiento de adjudicación será voluntaria y deberá hacerse dentro el plazo y utilizando el medio que se especifique en las bases reguladoras de cada adjudicación.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única. Inscripciones anteriores en el Registro de Solicitantes de vivienda tasada municipal de Tolosa.

El Servicio de Vivienda del Ayuntamiento de Tolosa otorgará a aquellas personas y unidades convivenciales inscritas, con anterioridad a la entrada en vigor del presente Reglamento, en el Registro de Solicitantes de Vivienda Tasada municipal y cuya demanda de régimen hubiera sido de compra y alquiler o sólo de alquiler, un plazo de 15 días para que se incorporen en el nuevo Registro de Solicitantes de vivienda protegida en arrendamiento, alojamientos dotacionales y viviendas asimiladas.

Tolosa, a 18 de febrero de 2013.—El Alcalde, Ibai Iriarte San Vicente. (2025)